



PLAXIDO GURIDI

San Pedroko Torreko Semia

- Noiz hasi zifian lanian?

Altunarian 1936xan hasi eta hogetamahiru urtez bertan lana egin nixonan. Baiña aurretik ofizio asko euki xonat: baserritar mutikotan, ondoren manastagiñan ikasi finan.

- Nun egitten zebeu manastagiñan?

Etxian, anaia zonan manastagin ona eta berakin ikasi finan.

- Saltzeko ala etxerako bakarrik?

Almazenerako, eta hemen inguruko baserritan ebalten ziranak be, gure anaiak egitten txunan. Eta gero armero be izan nintzonan, Eibarko armerixarako.

- Egunero faten zifian Eibarreraifio?

Ez; ekarri handik materiala eta egin hemen egitten giñunan. Orain *Aitzgorri* tabernia dauen lekuan bizi zonan nere anae bat eta han jarduten giñunan eskopetaintzan hiru anae eta illobia.

*84 urte, burua argi,
afiziño ugari,
komestante ona... Oso
gustora bota dogu
arratsaldia berakin eta
makiña bat kontu barri
jakin dogu. Honeittako
batzuk zueiri
kontaittia
egogi pentsau
xaku.*



- Ze lan egitten zebein?

Materiala ekarri eta hemen dana ajustau, eskopeta osua montaitten giñunan eta Eibarrera bialdu han kultura egitteko.

- Zenbat denbora ibilli zifian lan horretan?

Sei urte pasa. Lan honeikin be badakin ze pasaitten zan: boladak egoten zirala; batzutan lan morduia eukiten giñunan eta hurrengo bajualdixa. 1936rako gauzia oso gaizki xaonan eta itxi egin gitxanan lan honi eta Zubillagako *Altunanera* fan nintzonan lan eske. Gerria hasi zanian, *Altunanetik* be jende asko fan zonan Bizkaira eta jente-biharra xakonain.

- Gerra denpora darian, itxi barik, lanian jarraitu eben *Altunak*?

Bai, gerrarako piezak egitten txunain eta. Espoletak, perretxikuak moduko gauza batzuk zittunan, eta bonbak eruateko kateiak be morduia egitten zittunan, eta podartaxiak be bai tarteka. Orduan lana gura beste izaten zonan, baiña materiala zuzenketan ibiltten gintzonan gaizki.

- Beste fabrikarik baeguan Oñatin?

Ni mutikua nintzala, fabrika ganorazkorik bi zittunan, bata Zubillagako forjia eta bestia hemengua, San Pedrokoa. Zubillagan egitten zonan forjia eta hemen akaberia. Palia, pikatxoia, atxurra eta dana han forjai eta hona ekarri egitten xonain zaldixakin.


- Noizko kontuak dira horreik?

Hori, kontuori orain 75-76 urte ingurukoa don. Han xaonan leterua, 1877, hemengo fabrikia noiz egin zan. Españako lehenengo erraminta-fabrikia zonan hau. Zubillagako olia lehenagokua zonan; esaten xonai han bertan urtu eta bertan etaraten zala materiala. Sasoi inguru horretakuak izango dittun *Onraitia* eta *Arrue* be, baiña besterik etxaonan. *Garai* be pospologintzan zaharra zonan, baiña guardasolak eta egitten 1920xan edo hasiko zonan. *Altuna* be ingurukua don. Zela lehen errota zan eta eurak, hiru anaiak, ofiziodunak ziran, uraren inddarra aprobetxauaz, tailerra ifinttia pentsau xonain.

- Eskolan San Pedron ibili zifian?

Bai, umetan ibilitia finan San Pedron. Gero Madale-

Araba Etorbidea, 4
Tfnoa. 79 01 32
ARRASATE
9,00 - 13,00
16,00 - 20,00




Olakua, 14
Tfnoa. 71 60 00
OÑATI
16,00 - 20,00

ALEMANA • FRANTSESA • INGELESA

- MAILA GUZTIAK
- HAURRAK, GAZTEAK, HELDUAK
- GOIZ ETA ARRATSALDEZ

HURBILDU ZAITEZ
GURE BULEGOETARA!



nakuan eta azkenian Zañartun monjakin. Baiña 12 urtekin eskolatik urten egin ñunan nik, biharak eragindda. Neu nintzonan gaztiena eta bestiak ofizio ikasten ebizten garaixan, bateko kaletik errekauek egin biharra, besteko erpillak jo biharra, sarritan eskoliori ahaztuta ibiltten gintzonan. Hamabi urte pasatxo neukala, eskolatik kanpora geratu nintzonan. Gaur etxaon orduko konturik.

- Ordutik hona egon dan aldaketia hobera ala okerragora izan dala uste dozu?

Orain jentia hobeto bizi don. Prisaka bai, baiña diru gehixagorekin, hobeto jantzitta eta dana. Jan be hobeto. Orduan baserriko jana zer izaten zonan? Goizian berakatz-sopia olixo erria gañian bota eta haxe, gero katillukada bat tremesa eta esnia, eguerdixan babia urdai pusketeta batekin eta orduan etxaonan postreirik; mahatsa edo sagarren bat etxian baeguen haxe eta bestela ezebez. Gabian afaitteko patatak eta esnia. Etzonan gaurko konturik egoten.

- Lan ugari egitten zebein, baiña domeketan juerga be bai ezta?

Domeka danetan eta jai erdikotan San Pedron musikia egoten zonan. Kalian bandia baxaonan, baiña etxonain joten eta orduan hemen bakarrik egitten zonan erromerixia. Inguruko danak bertara etorten zittunan. Orduan domekero zonan San Pedro eguna.

- Neska-lanetan be ekinaldixak egindakua izango zara?

Ez, artian gaztetxua nintzonan. 1924an geratu zonan, plazan musikia jotzen hasi zittunan eta hemengo erromerixiori akabo.



- Helduta dantza egittia garai haretan prohibiuta eguen, ezta?

Bai, abadiak eta beti mittingiñan ibiltten zittunan helduta dantza egitten zalako. *Aloña* zitiña be 1924an edo egin zonan. Gu, mutikotiak giñala, faten gintzonan baiña etxaonan jokera haundirik: gu goixan neska-mutil batzuk eta behian bost-sei pareja, besterik etzonan egoten. Pelikula onak ekarten txunain, baiña jenterik ezin tiratu.

- Zertarako jokeria eukan jentiak?

Ba, plazan bandiak jotzen txunan zortzi bat pieza eta hareitxek dantza egin ondoren, ba etxera. Gero Garizuma garaixan, zela musikarik etzan izaten, txirikilletan egitten zonan domeketan. Neska-mutil hazixak eta ezkonketako ebizenak izaten zittunan txirikilletan kamiñuan —etzonan gaur lako trafikorik— jolas egitten ebeñak. Gero illunabarrian, kantualdi eta dantzaldi baten ondoren, etxera; nobixia eukanak lagunketan txanan eta bestiak bakoitza bere bidetan.

- Trenbidia noizkua da?

1920xan hasi zonan eta hiru urte pasau txunain hemendik San Prudentziorakua egitten. Atxurra, palia eta pikatxoiaz egin zonan dana. Upaingo Jabierrek egin xonan trenbidia eta San Pedrofik kalera bittartekua egitteko zañartuarrak hartu txunan lanerako. Estella-Bitorrixa trenbidia be Upaifiek egin xonan.

- Oñatira trena ifinttiak asko aldatu eben egoeria? jentiak gahixago urtefen eben?

Nora fango gintzonan ba? Dirurik etxaonan baiña! Hara! Paskuak bai, eta kotxiak zaldixakin Bergarara hiru-lau biaje egitten batxunan nahikua. Beste batzuk oñez be faten zittunan Bergarara edo Mondrauera San

Trena inaugurau zana egunian, 1923ko San Migel bixamonian, sei kotxe bete-bete egindda fan gintzonan Oñatitik San Prudentzioraiño. Fan-etorrixa debalde zonan egun haretan eta.


Juanetan eta. Dirurik ezeguenian etxaonan gaurko konturik: "Halako eta halako Benidorrera fan dittuk", orduan Benidor ze zan be!

Pentsau egin. Orduan hemen fabrika zaharra eguenian 12 ordu lana egitten zonan eta 11 errial irabazten zonan eta *Kanpixa* esaten otzain txistosu batek esaten xonan: "Onddiok etorri bixok ocho horas de trabajo y cinco pesetas de jornal" eta jentiak horreik lelokerixak zirala esaten xonan. Baiña berak lanari itxi otzan orduko, egunian bederatzi ordu lana egindda 5 pezetako jornala irabazten xonan.

- Urte gutxixan aldaketa gogorak ikusittakua zara...

Bai horixe! Fabrikak hartu ebein inddarra hartu baiño lehen, Jabier Upaingua be bidegintzan hasi zanian Gernikaraiño bizikletan faten zonan trenbidetarako trabiesak egittera. Gaur egun atzera be lan kontuori gaizki xaon. Holaxe izaten dittun bizimoduko gorabeherak!

Ni neu enaun sekula izan soldaduzkiaren aldekoa. Entzunda xakonat gure aurrekuairi lehenago ezeguela soldaduzkarik eta Madrilgo gobiernuak dominau ebenian ifiñittako gauzia dala.



KONTRATAK
IRUROK, S.L.
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka, 5 bis. • Tfnoa 77 09 92
20500 ARRASATÉ

San Lorenzo, 39 • Tfnoa: 78 21 82
20560 OÑATI